

EGIAZTAPEN ESKAERAK BETZEKO LAGUNTZA GIDA

ESKAERA BETETZEA

Gida hau, alde batetik lan-kontratuko lanpostuetara sarbidea ematen duen ebaluaziora aurkezten diren irakasle eta ikertzaileei eta bestetik, unibertsitate pribatuetako irakasle doktoreei laguntzea du helburu.

Datu pertsonalez gain, eskaerak dituen ataletan ebaluatuko izatea nahi dituzuen meritu **guztiak** zehaztu behar dituzue. Hutsik dauden eskaerak ezin izango dira itxi eta ez dira ebaluatuko.

CV osoa (nahi den formatuan), ez da ebaluatuko, eskatzailearen ibilbidea adierazteko eta, zalantza kasuan, ebaluatzaileak laguntzeko balioko du. Eskaeraren atal batzuetan adierazi daitezkeen ekarpenak mugatuak direnez, curriculum hau pertsonaren ibilbide akademikoa eta lan jarduera osoa adierazteko balioko du.

MEREZIMENDUAK NOLA EGIAZTATU

Eskabidean adierazten dituzuen merezimendu guztiak egiaztatu behar dituzue, zuzen egiaztatzen ez diren merezimenduak ez dira kontuan hartuko ebaluazioan. horretarako, beharrezko agiriak aurkeztu behar dituzue (argitalpenak salbu, ikusi argitalpenen atala, 2. Orrialdean) Jarraian nola egiaztatu jasota dago.

Mezu elektronikoak ez dira egiaztagiri egokitzat hartuko.

Eskaera betetzen den aplikazio informatikoan zuzen adierazten eta egiaztatzen ez diren merituak ez dira ebaluazioan kontuan hartuko.

Eskaeran adierazitako merituak egiaztatuak egon beharko dira, dena delako jarduera egin duzuen unibertsitate, zentro edo erakundeak emandako egiaztagirien kopiak aurkeztuz. Ziurtagiri horretan, hurrengo puntuetan adierazitako informazio guztia zehaztu beharko da, jarduera bakoitzeko.

Merezimenduen justifikazioen kopiak ez dira konpultsatu behar.

Ziurtagiriak aurkezteko ordena, aplikazio informatikoan atalka eta azpiatalka adierazitako merituen orden bera jarraitzea gomendatzen da.

1. IKASKETA ETA IKERKUNTZA PRESTAKUNTZA (Irakasle oso eta ikerketa-irakasleak izan ezik)

1.1 UNIBERTSITATEKO IKASKETA PRESTAKUNTZA

- **Espediente akademikoaren** kopia.
Espediente akademikoaren batez besteko nota 1-4 harteko tartean egongo da
- **Doktoregoaren** kasuan, zuzendaria, izenburua, saila eta titulua zein unibertsitatetan defendatu den, defentsa noiz izan zen eta lortutako kalifikazioa, nazioarteko tesia, tesia euskaraz bada edo/eta doktoretza aparteko saria lortu duen zehaztu beharko duzue.
- **Bestelako titulazio**, master, gradu-ondoko ikastaro edo prestakuntzako bestelako kurtsoen kasuan, eskabidean ikastaroaren izenburua, ikastaro mota, unibertsitatea eta zein zentrotan egin den zehaztu beharko da, bai eta ikastaro edo titulua zenbat ordu edo kreditukoa den ere. 6 hilabetetik gorako ikastaroak besterik ez dira kontuan hartuko.
Doktoregora sartu ahal izateko masterrak ez dira kontuan hartuko
- **Hizkuntzak** egiaztatzeke, zein hizkuntza den, titulua zein zentrotan atera duzuen, egiaztatze-data eta zer maila lortu duzuen zehaztu beharko duzue.

1.2 BEKAK, KONTRATUAK ETA IKERKUNTZA-EGONALDIAK

Jarduera mota eta kategoria (doktoretza aurrekoa, doktoretza ondorengoa, irakasle edo ikertzaile bisitaria, ...), jarduera zein zentrotan egin den eta egonaldiaren hasiera eta bukaera data adierazi beharko dituzue.

2. IKERKUNTZA-JARDUERA ETA EZAGUTZA ZABALTZEA (Irakasle Osoa eta Ikerketa Irakasleen kasuan 1. Atalean)

2.1 ARGITALPENAK ETA EZAGUTZA ZABALTZEA

Argitalpen mota bakoitzean gehienez 30 ekarpen adierazi ahal izango dira. Irakasle Osoa eta Ikerketa-Irakaslearen kasuan gehienez 60 ekarpen izango dira.

- ⌘ **Liburuak**: eskabidean, gauza hauek adierazi behar dituzue: egilea edo egileak, izenburua, argitalpen-lekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, orrialde-kopurua, ISBN, kalitate adierazleak eta hizkuntza.
- ⌘ **Liburuko atalaren** bat: eskabidean, gauza hauek adierazi behar dituzue: egilea edo egileak, atalaren izenburua, liburuaren izenburua, liburuaren zuzendaria edo argitaratzailea, argitalpen-lekua, argitaletxea, argitalpen-urtea, zenbat orrialde diren zuenak, ISBN, kalitate adierazleak eta hizkuntza.
- ⌘ **Artikuluak**: Eskabidean, gauza hauek guztiak adierazi behar dituzue: egilea edo egileak, izenburua, aldizkaria, aldizkariaren zenbakia, argitaletxea, argitalpen-urtea, zenbat orrialde diren zuenak, kalitate-adierazleak, ISSN eta hizkuntza.

OHARRA:

***Ez da beharrezkoa argitalpenen kopia bidaltzea. Izan ere, nahikotzat jotzen da eskaeran betetzen diren eskatutako datuekin (ISBN/ISSN aipatzen denean), argitalpenen bilakaera egiten laguntzen baitu.**

***Argitaratzeko dauden artikuluetatik behin betiko onarpena dutenak bakarrik hartuko dira kontutan, aldizkariak edo editorialak emandako ziurtagiri batekin egiaztatuz gero.**

^ **Patenteak**

Eskabidean, erregistroko datuak jaso behar dituzue.

Patentea erregistratu eta eman izanaren kopia ofizialak erantsi.

GARRANTZITSUA:

***Kalitate-adierazleak dituzten argitalpenak soilik hartuko dira kontuan. Hauek adierazten ez badira baliteke batzordeak meritu horiek ez balioestea, ekarpenak inolako balio akademikorik ez duela estimatzen duelako, ez delako inpaktu nahikorik egiaztatzen**

SEIURTEKOAK / IKERTAMOS: garrantzitsua da seiurteko-ak edo ikertramos-ak izatearen kasuan, kopurua, haietako bakoitzaren aldia eta lorpen-data adieraztea.

2.2 IKERKUNTZAKO ETA EZAGUTZA ZABALTZEKO TALDEKO JARDUERAK

Ikerketa-proiektuak, kontratuak, taldeak eta sareak

Gauza hauek guztiak adierazi behar dituzue: jardueraren izenburua, deialdi mota (nazioartekoa, nazionala, autonomikoa, unibertsitatekoa, bestelakoak), erakunde finantzatzailea, kategoria (proiektuan izan duzuen erantzukizuna: ikertzaile nagusia, ikertzailea, bekaduna, ...), ikertzaile nagusiaren izena, proiektua zein unibertsitate edo erakundetan egin zenuten (jarduera-proiektuaren izenburua), hasiera-eguna eta amaiera-eguna eta finantzaketaren zenbatekoa.

Unibertsitateak emandako ziurtagiriaren kopia edo eskatzaileen lantaldeetako parte-hartzea eta diru laguntzaren zenbatekoa ziurtatzen duen ziurtagiriaren kopia aurkeztuko da.

Proiektuetan parte-hartzea ziurtatzeko ez dira ikertzaile nagusiak sinatutako ziurtagiriak ontzat emango.

2.3 KONGRESUAK

Eskabidean, datu hauek guztiak adierazi: jarduera mota (nazioartekoa, nazionala, tokikoa,...), erakunde antolatzailea; lekua (hiria eta lurraldea), hasiera eta amaiera data, eskari-egileak zer egin zenuten (hizlari gonbidatua, komunikazioa, posterra, ...), izenburua.

Kongresuetan emandako komunikazioen kasuan, txostengilea komunikazioa aurkeztu duela argi eta garbi justifikatu behar da.

Gehienez 10 kongresu adierazi daitezke.

2.4 DOKTOREGO-TESIEN ZUZENDARITZA

Tesiaren egilea, izenburua, elkarzuzendaritza, zuzendari kopurua, zein unibertsitatetan defendatu zuen (saila eta unibertsitatea), urtea eta kalifikazioa, nazioarteko tesia, tesia euskaraz bada edo/eta doktoretza aparteko saria lortu duen zehaztu beharko duzue.

2.5 IKERKUNTZAKO BESTE MEREZIMENDU BATZUK (IRAKASLE OSO ETA IKERKETA-IRAKASLEEN KASUAN BESTERIK EZ)

Ikerkuntza-egonaldiak

Jarduera mota (doktoretza ondokoa, irakasle edo ikertzaile bisitaria, ...), kategoria, jarduera zein zentrotan egin den eta egonaldiaren hasiera eta bukaera data adierazi beharko dituzue eskabidean.

Doktorego ondoko beka eta ikerkuntza-kontratuak

Jarduera-mota (doktoretza ondoko beka, ikertzaile-kontratua, ...), kategoriak, jarduera zein zentrotan egin den eta egonaldiaren hasiera eta bukaera data adierazi beharko dituzue eskabidean.

Sariak

Saritutako jardueran izena, ematen duen erakundea, deialdi-mota eta data.

3. IRAKASKUNTZA-JARDUERA ETA LAN ESPERIENTZIA. (Irakasle Osoa eta Ikerketa Irakasleen kasuan 2. Atalean)

3.1 UNIBERTSITATE IRAKASKUNTZA JARDUERA ETA IRAKASKUNTZA-JARDUERA

Irakaskuntza jarduera

Eskabidean, gauza hauek guztiak zehaztu behar dituzue: mota (gradua, graduondoa, bestelakoak) ikasturte akademikoa., titulazioa, irakasgaia, zein unibertsitate edo zentroan egin den, kontrataturiko kreditu, hizkuntza eta emandako irakaskuntzaren ebaluazio-nota.

Eskatzaileak bere irakaskuntza-jardueraren kalitateari buruz aurkeztutako ebaluazioak egiaztatzeko, ikasleen inkestaren kopia bat erantsiko du. (aipatutako inkestak aurkezten ez badira, ez dira kontutan hartuko)

Irakaskuntza jarduera era egokian egiaztatzeko, emandako irakaskuntza adierazten duen saileko edo fakultateko Zuzendariak edo Idazkariak sinaturiko dokumentu ofizial bat aurkeztu beharko da, non, ikasturte akademikoko kontrataturiko kreditu- edo ordu-kopurua, hizkuntza eta kontratu mota adieraziko diren

Hirugarren zikloko eta graduondoko programatan parte-hartzea eta zuzentzea (Ikerketa irakasleen kasuan besterik ez)

Eskabidean, gauza hauek zehaztu: Programa-mota, programaren izenburua, zein unibertsitate edo zentroan egin den, hasiera eta amaiera data.

Lanen zuzendaritza (tesinak, IAD, gradu edo master amaierako proiektuak,...)

Eskabidean, gauza hauek zehaztu: mota, izenburua, saila eta titulua zein unibertsitatetan defendatu den, defentsa noiz izan zen eta hizkuntza.

Irakaskuntzako argitalpenak

OHARRA: Irakaskuntzako argitalpenak egiaztatzeko, 2.1 atalean erabilitako irizpide berak erabiliko dira.

Irakaskuntza berritzeko proiektuak

Eskabidean, gauza hauek zehaztu: mota (parte hartzea/koordinazioa, etb.), deialdi mota, erakunde finantzatzailea, kategoria, unibertsitatea edo zentroa, proiektuaren izenburua, hasiera eta amaiera data, zenbatekoa eta hizkuntza.

Goi Mailako Hezkuntzako Europako Esparrura egokitzeko proiektuetan parte hartzea

Jarduera mota, funtzioak eta hasiera eta amaiera data zehaztu beharko duzue.

Ikasleen Mugikortasun programetan parte hartu izana (Doktore-tituludun ikertzaile eta Ikerketa irakasleen kasuan besterik ez)

Jarduera eta hasiera eta amaiera data zehaztu.

Jarduerako eta irakaskuntzan prestakuntzako ebaluazio positiboak

DOCENTIA, Eragin, Label edo antzeko programekin Irakaskuntzaren kalitatea egiaztatu daiteke.

DOCENTIA ebaluazio bat izanez gero, eskatzaileak ebaluaziora aurkeztutako deialdiaren urtea eta lortutako puntuazioa adierazi beharko ditu, beti ere Unibasq-ek egin badu unibertsitate horren DOCENTIA programaren ezarpenaren jarraipena. Meritua, aurretik aipatutako datuak agertzen diren eta unibertsitateak igorritako ziurtagiri batekin egiaztatuko da.

Horretarako, baliozkoa da Unibasq-ek egiaztatutako DOCENTIA ereduan aurrez ikusitako unibertsitatearen organo ebaluatzaile eskudunak sinatutako eta igorritako ebaluazioaren emaitzaren komunikazioa.

Jardueraren nota, laburpena, emandako formakuntzaren inpaktua, hasiera eta amaiera data eta programaren titulua zehaztuko dira.

3.2. LAN-ESPERIENTZIA

Eskabidean aukeratutako jakintza arloarekin lotutako jarduera soilik hartuko da kontuan. Ondorengo zehaztuz: jarduera mota (lizentzia fiskalararen edo lan-kontratuaren bidez); besteren kontura lanean ibili bazarete, zein erakundetan lan egin duzuen zehaztu beharko duzue, noiz hasi eta bukatu den lana eta kontratua zer-nolakoa zen (lanaldi osokoa edo partziala).

Lan-kontratuaren edo bizitza laboralaren kopia aurkeztuko da, non jardueraren hasiera eta bukaera data agertuko diren. edo langile autonomo gisa emandako alta eta baja, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko zergako alta eta baja.

Ekintzailtza-jardueretako parte-hartzea

Jarduera eta hasiera eta amaiera data zehaztu.

4. KUDEAKETA –JARDUERAK

Unibertsitatean pertsona bakarreko kudeaketa-karguak

Argi eta garbi zehaztu beharko duzue zer kargu izan duzuen eta noiz hasi eta bukatu den zuen lanaldia.

Zerbitzu-orriaren kopia bat edo kargurako izendatzeko eta kargutik kentzeko ebazpenaren kopia bat aurkeztu beharko duzue, edo dena delako jarduera egin duzuen unibertsitateko ziurtagiri originalaren kopia (aurreko paragrafoan zehaztutako informazio guztia adierazi behar du).

Unibertsitateetako erakunde-batzordeetako parte-hartzea

Parte-hartze mota eta hasiera eta amaiera data zehaztu.

Administrazio publikorako egindako zerbitzuak

Argi eta garbi zehaztu beharko duzue zer kargu izan duzuen eta noiz hasi eta bukatu den zuen lanaldia.

Posturako izendatzeko eta kargutik kentzeko ebazpenaren kopia bat aurkeztu beharko duzue, edo lan egin duzuen dena delako administrazioan emandako ziurtagiri originalaren kopia (aurreko paragrafoan zehaztutako informazio guztia adierazi behar du).

Ikerkuntza-proiektuen eta jardueren kudeaketa (Irakasle osoa eta Ikerketa irakasleen kasuan besterik ez)

Zer jarduera den azaldu eta zer-nolako parte-hartzea izan duzuen zehaztu beharko duzue eskabidean, hasiera eta amaiera data zehaztuz, eta hori egiaztatzeko ziurtagiri originalaren kopia aurkeztu.